

EUSKADIKO OSASUN ETA INGURUMEN BEHATOKIA DISEINATZEA ETA ANTOLATZEA

Posted on 16/09/2024 by Naider

Naider [Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzari](#) laguntzen ari zaio **Euskadiko Osasun eta Ingurumen Behatokia** diseinatzeko eta antolatzeko prozesuan.

Lan honek bi fase ditu: batetik, egoeraren diagnostikoa egiteko lehen fasea, Behatokia garatzeko oinarriak ezarriko dituena; eta, bestetik, diseinua eta antolaketa egiteko bigarren fasea, Behatokiaren misioa eta helburuak definituko dituena, bai eta haren funtzioak, edukiak, informazio-iturriak eta kudeaketa-, gobernantza- eta ebaluazio-ereduak ere, besteak beste.

Osasun eta ingurumen gaietan **aditu den talde batek hartuko du parte** prozesuan, eta Behatokiaren ildo estrategikoak eta funtzionaltasunak zehazten lagunduko du.

Euskadiko Osasun eta Ingurumen Behatokia sortzeko beharra EAEn osasunaren eta ingurumen-politiken arloan **erreferentzia diren bi tresna estrategikotatik** sortu da: [Euskadiko Osasun Plana 2030](#) eta [2030erako Euskadiko Ingurumen Esparru Programa](#). Behatoki hori sortzeak aukera emango du **osasunean ingurumen-inpaktuak hobeto ulertzeko** eta Euskadiko biztanleen bizi-kalitatea hobetzeko **erabakiak hartzeko eta politika eraginkorrak ezartzeko**.

